

MELOI ERREGEA



Bazen behin Usondo parkeko uda bero batean meloi errege bat.

Meloi erregea lotsatia, beldurtia, jatorra eta tamaina ertainekoa zen.

Bergaran bere haziak oso zatarrak zirela esaten zioten, baina erreginari ez zioten ezer esaten. Meloi erregea oso triste zegoen irainak jasotzen zituelako behin eta berriz.



Orduan, bere lagun elefanteari laguntza eskatzea pentsatu zuen:

- Elefante Jauna, lagundu ahal didazu hazi hauek kentzen?
- Bai, ez da erraza izango baina saiatuko naiz.



Saiakera asko egin zituen baina... ez zuen lortu.

- Sentitzen dut lagun, baina ezin izan dizkizut haziak kendu.
- Ados, eskerrik asko hala ere. Orduan nire lagun untxiari laguntza eskatuko diot.

Eta untxiaren etxera abiatu zen.

- Untxi Jauna, lagundu ahal didazu hazi hauek kentzen?



- Bai noski, etorri, saiatuko naiz.

Eta berriz ere, asko saiatu ostean...

- Barkatu, Meloi errege baina ezin izan ditzkizut haziak kendu.

Meloi erregea oso triste zegoen eta bere tximino lagunari deitu zion.

- Tximino Jauna, lagundu ahal didazu hazi hauek kentzen?
- Asko eskertzen dizut nigan duzun konfidantza baina... ez dakit lortuko dudan. Etorri, saiatuko naiz.



Minutu batzuk geroago...

- Barkatu, baina nik ere ezin izan dizkizut zure haziak kendu.

Meloi erregea geroz eta tristeago zegoen eta itxaropena galtzen hasita zegoen. Bat-batean meloi erregina agertu zen eta esan zion:

- Ez egon triste, zure haziak oso politak dira, lasai egon, ez zaitez kezkatu.

Hori entzun zuenean Meloi erregeak orduan ulertu zuen bere haziak ez zirela zatarrak, ez zirela arazo bat baizik eta bere haziak berezia egiten ziotela, besteengandik desberdintzen zutela.

